ALEMANIA NORVEGIA POLONIA PORTUGAL ESPAINIA

OPEN LEARNING VENUES

BASQUE

IKASTEKO GUNE IREKIAK TOKIKO KOMUNITATEETAN – EUROPAKO JARDUNBIDE ONAK



Argitalpen hau "Ikasteko gune irekiak kulturarteko eta belaunaldien arteko komunitaterako" proiektuaren baitan prestatu zen, Europako Batasuneko Erasmus+ Programaren laguntzaz.

Co-funded by the Erasmus+ Programme
of the European Union

Europako Batzordeak argitalpen honen ekoizpenari laguntza emateak ez du esan nahi edukiarekin ados dagoenik; txostenaren egileen iritziak dira hemen islatzen direnak, eta Batzordea ezin da bertan jasotako informazioaz egin daitekeen erabileraren erantzule gisa hartu.

ARGITALPEN HAU DOAKOA DA
Proiektuari atxikitako erakunde guztien ordezkariek osatu zuten argitalpen hau prestatu zuen proiektu-taldea. Irudi guztiak proiektua aurrera daramaten erakundeen artxiboetakoak dira.

Bialystok, Arendal, Brunswick, Iruñea, Ponte de Sor - 2020

OPEN LEARNING VENUES

AURKIBIDEA

Sarrera 4

Europako jardunbide onak, ikasteko gune irekiak sortzekoproiektuari atxikitako herrialdeetan 8

- Alemania 9
- Norvegia 19
- Polonia 29
- Portugal 39
- Espainia 49

Proiektuari atxikitako erakundeak 59

- Braunschweig GmbH-ko Helduentzako Hezkuntza Zentroa 60
- Arendaleko Helduen Ikaskuntza Zentroa (Arendal voksenopplaering) 61
- GKEentzako Laguntza Zentroa (OWOP) 62
- Caminhar – A.C.A.S. 63
- Piparrika Elkartea 64

SARRERA

Ikasteko gune irekiak: gizarteratzeko etorkizun handiko ekarpena

"Kultura eta belaunaldien arteko komunitatearentzako ikasteko gune irekiak" proiektuaren testuinguruan aplikatu den lehentasuna gizarteratzea da, aukera zabal gisa ulertuta eta Europako Batasuneko Erasmus+ Programak parte hartzen du haren finantzazioan. Aukera hori lehenesten da proiektuaren asmoa talde behartsuen bazterketari aurre egiteko neurriak aplikatzea delako, kasu honetan, batez ere, migrazioan iritsitako pertsonen (errefuxiatuak, migratzaile iritsi berriak, asiloa eskatzen duten pertsonak) eta adinekoen bazterketari.

Ikasteko espazio ireki egokiak garatuz lortu nahi dugun helburua da kultura eta belaunaldien arteko komunitateak eraikitzea, espazio publikoak lehentasunezko eremu gisa erabiliz, eta horietan sortzea tokiko komunitateetako pertsonak eta erakundeak erakarri eta inplikatuko dituzten jarduerak.

Liburu elektroniko digitala sortu dugu, elkartutako erakundeetako boluntario konprometituen esperientzietan sortzen diren eta oinarritzen diren jardunbide onak, ideiak, ikuspegiak eta metodologiak partekatu ahal izateko, proiektua aldi berean bost herrialdetatik gauzatzen ari baitira.

Testuingurua: Erronka handiak Europako gizarteentzat

Munduan diren gatazka armatuek, gerrek, ingurumen-arazoek eta migrazio-prozesuak areagotu izanak nabarmen handitu dute Europako herrialdeetara iristen diren errefuxiatuen eta migratzaileen kopurua. Azken urteotan, bereziki 2015etik aurrera, segurtasun bila iritsi den jende-kopurua (baita migratzaileen artean ere) inoiz baino handiagoa izan da. Prozesu horiek eragin zuzena dute Europako hiri nahiz herrietan biltzen den aniztasun gero eta handiagoan, eta badakigu harrera-gizarteak ez daudela beti prestatuta "jende arrotzekin" aurrez aurre topo egiteko.

Europa modernoak konpontzeko duen beste arazo larri bat gizartearen zahartzea da. Horrek erronka handiak sortzen dizkie tokiko komunitateei. Pertsona asko bakarrik eta bakartuta daude, haien ondorengoek hirigune handietara edo beste herrialde batzuetara joan behar izan baitzuten. Egoera horrek eskatzen ditu, besteak beste, adinekoak komunitatean gizarteratzeko jarduera gehiago antolatzea, haien bazterketari aurrea hartzea, eta tokiko komunitate-bizitzan haien parte-hartze osoa bermatzeko aukerak sortzea.

Kontzienteak gara proiektu honen ardatza diren bi talde horiek tokian tokiko komunitateen bazterketa jasateko arrisku handia dutela, alde batetik, pertsona horien hainbat gaitasun faltagatik, bestetik, hezkuntzan hasteko zailtasunengatik, eta askotan, tokiko komunitatean sartzeko eragozpenak tartean direla, oro har, tokiko komunitateak kolektibo hauenganako tarte handia jartzen duelako. Arazoa elkar ez ezagutzea izaten da, eta elkarrengandik ikasteko eta ingurune adiskidetsu, pizgarri eta motibatzaile batean trebetasunak eta gaitasunak garatzeko aukerarik ez izatea.

IKASTEKO GUNE IREKIAK - **ZER ESAN NAHI DUGU HONEKIN?**

Ikasteko Gune Irekia

ikaskuntza-prozesua garatzeko prestatutako leku bat da (kanpokoa edo barrukoa), komunitatea hainbat modutan indartzeko aukera eskaintzen duena, helduen hezkuntzarekin konprometitutako hainbat eragileren lankidetza oinarri hartuta, kultura eta belaunaldien arteko testuinguruetan.

Irekia

bertan ikasleek eta parte-hartzaileek beste pertsona batzuekin topo egiten dute, batez ere auzotarrekin, eta guztiak, modu batera edo bestera, ikasle bihurtzen dira.

Ikaskuntza

modu ireki eta aldagarrian: pertsona batzuek besteengandik ikasiz, edota tutoreek, irakasleek nahiz boluntario konprometituek lagunduta. Europako hezkuntza-politika ofizialaren hitzetan, horrelakoa litzateke: ikaskuntza informalaren eta ez-formalaren askotariko modalitateetan.

Gunea

batez ere helduen ohiko hezkuntza-erakundeetatik kanpo, askotariko gaiak lantzen dituzten pertsona interesatuekin eta tokiko ekimenekin batera lan eginez. Tokian tokiko interes eta elkargune arruntak erabiliz. Edo erakundeen barruan, baina zabalik, programa erregularretik kanpo dauden pertsonentzat eta auzotarrentzat.

Bi kolektibo horiek bereziak izanik — aurrekari migratzaileak dituzten pertsonak eta adinekoak —, beharrezkoa da haien beharren arabera egokitzen diren gaitasunak ikasteko eta garatzeko aukerak eta espazioak sortzea.

Garrantzitsua da prozesu horiek eremu sozialean egitea, eskolako horma itxietatik kanpo, hezkuntza-jarduera horietan parte hartzea errazagoa eta formula integratzailea izan dadin. Izan ere, bi kolektibo horietako pertsonen artean ohikoak izaten dira gizarte-gaitasun mugatua, hizkuntzaren ezagutza urria, eta hezkuntza-jarduerak egiteko motibazio falta.

Gure ustez, irtenbide bat izan liteke tokiko komunitateetako hainbat erakunderen lankidetza zabaltzea, eta bertan inplikatzea, esaterako, gobernuz kanpoko erakundeak, helduen hezkuntza-zentroak, kultura-erakundeak, tokiko politikak egiten dituzten pertsonak, etab. Garrantzitsua litzateke, bestalde, jarduera horiek egiten dituzten hezitzaileen gaitasunak lantzea.

Proiektua eta emaitza

Proiektua Europako bost herrialdetako bost erakundek prestatu eta gauzatu dute: Caminhar - A.C.A.S. (Portugal), Volkshochschule Braunschweig (Alemania), Arendal voksenopplaering (Norvegia), Piparrika Elkartea (Nafarroa/ Espainia) eta Osrodek Wspierania Organizacji Pozarzadowych (Polonia).

Proiektua aurrera eraman bitartean, kultura eta belaunaldien arteko tokiko komunitateak eraikitzeko, ikasteko gune irekiak sortzeko esperientziak eta jardunbide onak partekatu genituen. Bost aldiz bildu ginen erakunde parte-hartzaileen egoitzetan, gure esperientziak partekatu eta eztabaidatu genituen, eta liburu elektroniko bat sortzeko ekarpenak prestatzen hasi ginen, ikasteko gune irekien eta helduen hezkuntza ez-formaleko metodoen inguruko ikuspegiei zabalkundea emateko.

Proiektuaren balio transnazionala, funtsean, zera da, kultura eta belaunaldien arteko testuinguruetan, helduen hezkuntza aurrera eramateko ikuspegi desberdinei buruz ikasteko aukera eskaintzea. Herrialde bakoitzak bere berezitasuna du, eta nazioz gaindiko dimentsioari esker, proiektua gertutik ezagutzeko, bere jarduerak alderatzeko eta irtenbide eraginkorrenak bilatzeko aukera du.

Liburu elektroniko honetako adibideetan ezagutuko dituzu parte hartzen duten herrialdeetan kulturarteko eta integrazioko komunitateentzat antolatutako ikasgune irekien jardunbide bikainak, ideiak eta metodologiak. Herrialde bakoitzeko jardunbideak deskribatzen dituzten bost kapitulutan banatuta dago argitalpena. Liburua argiagoa izan dadin, jardunbide egokien adibideak zazpi kategoria desberdinetan sailkatu ziren, eta kategoriari esleitutako kolore banarekin markatu ziren (banaketa hori azaltzen duen legenda hurrengo orrialdean dago). Deskribatutako jardunbide bakoitza kategoria batekin baino gehiagorekin konbinatu daiteke.

Gure lan hau lagungarria izatea nahi genuke, jende gehiago animatzeko beraien tokiko komunitateetan jarduera integratzaileak sortzera, komunitateak sendotzeko, tokiko ikastetxeen,



GKEen, kultura-erakundeen eta beste hainbesteren arteko lankidetza handituz. Erabili ezazu eta gozatu! Zure iritziak eta iruzkinak jasotzeko irrika dugu!

Proiektuko taldea

JARDUNBIDE EGOKIEN DESKRIBAPENEI ESLEITUTAKO **KATEGORIAK:**

BELAUNALDIEN ARTEKO JARDUERAK

HORIA



KULTURARTEKO JARDUERAK

URDINA



KULTURA

GORRIA



INGURUMENA

BERDEA



TOKIKO KOMUNITATEA

BELTZA



HIZKUNTZA-GAITASUNA

ARROSA



OINARRIZKO HEZKUNTZA

LARANJA




JARDUERA SOZIALA

MOREA

OPEN LEARNING VENUES

ALEMANIA NORVEGIA POLONIA PORTUGAL ESPAINIA



PROIEKTUARI ATXIKITAKO ERAKUNDE EUROPARREN JARDUNBIDE EGOKIAK IKASTEKO GUNE IREKIEN SORRERAN

ALEMANIA


Braunschweig

TOKIKO LEKUAK AZTERTZEA - GAI HISTORIKO ETA KULTURALEI BURUZKO OINARRIZKO HEZKUNTZA

"SAMMELSURIUM"*

OINARRIZKO HEZKUNTZA ETA ARTISAUTZA-TAILERRAK KONBINATUZ ERREFUXIATUENTZAT

IKASTEKO ESPAZIOA:
STADTGARTEN BEBELHOF HIRI-BARATZEKO PROIEKTUA



TOKIKO LEKUAK AZTERTZEA - GAI HISTORIKO ETA KULTURALEI BURUZKO OINARRIZKO HEZKUNTZA

Zer

- Gai historiko, politiko eta kulturalak ikasteko garrantzia duten oinarrizko hezkuntzako esparruetan tokiko ikasketa-espazioak eta aukerak aztertzea eta antolatzea
- Hainbat proiektu, jarduera egoki askorekin, betiere tokiko eta eskualdeko historia espezifiko eta hurbilekoei lotuak: ikasleen eta kontaktatutako pertsonen esperientzia pertsonalak
- Herri Unibertsitateko Oinarrizko Hezkuntzako Eskualde Zentroaren (RGZ) eta hiriko hainbat eragileren arteko lankidetza (museoak, oroigarriak, antzerkia, GKEak, etab.)

Zergatik

- Oinarrizko hezkuntzaren eremuak zabaltzea, alfabetatzearen, aritmetikaren eta IKTen oinarrizko elementuetatik haratago, gai historiko, politiko eta kulturaletara
- Eremu horietako oinarrizko gaitasunak elkarlotzea eta lantzea, ikasleen tokiko eta eskualdeko testuinguruan hauteman daitezkeen ikaskuntza-abaguneetatik abiatuta
- Ikasteko aukera inspiratzaileak eskaintzea, tokiko erakunde eta ekimen desberdinetako solaskideekin bilerak eginez eta komunikazioa bermatuz
- Oinarrizko hezkuntzako ikasleak gidatzea,lehen deskribatu diren alderdi eta gaien inguruan eginen dituzten ikaskuntza-jarduerak beraiek zuzendu ditzaten, arreta jarriz, esaterako, IKTekin zerikusia duen ikerketan edo elkarrizketen prestaketan
- Oinarrizko hezkuntzako kualifikazio urriko ikasleei bideak zabaltzea eta bultza egitea, beren jatorrizko hiriko leku historiko, politiko eta kulturalez ohartu daitezen eta tokiko komunitatean parte hartuz esperientzia handiagoa lor dezaten



Nork

- Oinarrizko hezkuntzaren hartzaile diren zenbait talde, besteak beste, alfabetatze-ikastaroetako ikasleak edo Bigarren Aukerako Eskolakoak, ama-hizkuntza alemana duten ikasleak izan nahiz etorkinak edo errefuxiatuak izan
- Tokiko eta eskualdeko hainbat erakunde eta ekimenen lankidetza (aurrekoak bezalakoak)

Nola

- Tokiko edo eskualdeko leku interesgarriak eta inspiratzaileak identifikatuz gai eta testuinguru historiko, politiko edo kulturalekin
- Lankidetzak bilatuz eta haietara hurbilduz, hau da, lankidetzara “erakarriz”
- Gune horretan egin daitezkeen ikas jarduera zehatzak aztertuz
- Gure lanaren helburu izanen den taldearentzako edo taldeentzako materialak bilatuz eta egokituz
- Ikas jarduerak elkarlanean planifikatuz aurretik, eta elkarlanean aurrera eramanez, garatu bitartean eta ondoren
- Ikasleak berak zuzentzeko moduko ikaskuntza- eta ikerkuntza-zereginak diseinatuz
- Parte hartzen duten ikasleen ikas jarduerak, prozesua, progresioa eta atzeraelikadura dokumentatuz



URRATSEZ URRATSEKO GIDA

Adibidez, Braunschweig-eko Schillstraße kaleko oroigarrian beheko mailako ikasleekin historiaren inguruan egindako oinarrizko hezkuntzako jarduera: faxismoaren garaian Braunschweig-eko industrian aritu ziren Europako langile behartuak gogoratzea (http://schillstrasse.de/)

Prestaketa

1. Ikasleek nazien denborari buruz aldez aurretik dituzten ezagutzak gogora ekartzea eta sailkatzea
2. Lexikoaren arloa lantzeko "Lager" hitza (eremua) erabiltzea
3. Hiriaren mapa erabiliz monumentua kokatzea, inguruko leku ezagunak bilatzea eta horiei buruz hitz egitea

Oroigarrian

1. Kanpoko eremua aztertzea: oroigarriaren alderdi desberdinak
2. Monumentuko langileen ongietorria eta sarrerako hitzaurre labur bat
3. Ikasleek nazismoari, Bigarren Mundu Gerrari eta lan behartuei buruz aldez aurretik dakitena gogora ekartzea eta sailkatzea
4. Mapa eta argazki zaharrak oraintsuko egoerarekin konparatzea
5. Garai bateko lan behartuen eta langile behartu haien (poloniarrak, frantziarrak, etab.) istorioak kontatzen dituzten bideo-dokumentuak erabiltzea
6. Galdera irekiak eta eztabaida
7. Ikasle eta laguntzaileez osatutako lantaldeetan: banakako istorioak aztertzea eta "Artxibo irekia – Braunschweig-ek gogoan du..." (ik. goian)
8. Guztien arteko azken saioan gertaera eta alderdi interesgarriak aurkeztea; laburpena eta atzeraelikadura

Ondoren

1. Bisitan ikusitakoaren lexikoa berrikustea
2. Ikasleek beren interesen arabera zuzendutako ikerketa
3. Laburpen orokorra bere taldeentzategokitua eta, bidezkoa bada, besterentzat

Harremanetarako

RGZ, Braunschweig GmbH Helduen Hezkuntzako Ikastetxea

Alte Waage 15, 38100 Braunschweig, Alemania

Andreas Klepp ✉ andreas.klepp@vhs-braunschweig.de, www.vhs-braunschweig.de

SAMMELSURIUM*

OINARRIZKO HEZKUNTZA ETA ARTISAUTZA-TAILERRAK KONBINATUZ ERREFUXIATUENTZAT

Zer

- Helburua da biltegi sortzaile bat eraikitzea eraikuntzako atoi zahar batean, ikasleekin arlo praktiko ezberdinak landuz, eta aurrerago gune hori eskaintzea, haurren lorategietan sorkuntza-saioak egiteko material inspiratzaileak aurkezteko eta bertan erakusteko **
- Beraz, ikasleak oinarrizko hezkuntzako ikastaro bat hartzen ari dira ikasgelan, tailer praktikoetan lan egitearekin batera (adibidez, zura landuz, metala, bizikleta, joskintza). Ikaskuntza praktikoaren eta teorikoaren arteko konbinazio horrek lanerako trebetasun eta teknika baliagarriak garatzeko aukera ematen du, lantokian, lantaldearekiko komunikazioan, erabili beharreko hizkuntza hobetzeko eta praktikatzeko

Zergatik

- Errefuxiatuak gure komunitatean integratzea eta haiei prestakuntza ona eskaintzea, gaitasun egokiak eta baliagarriak emanez hizkuntzaren eta hezkuntzaren arloetan, goi-mailako edo lan-arloko ikastaroetan hurrengo urratsak egiteko
- Lantegi praktikoa ikaskuntza zabaleko lekua izanik, elkarlana lantzea eta ondoren ikaskuntza teorikoarekin lotzea
- Jasangarritasunaren inguruko gaietan toki horretan planteatzen diren erronkei aurre egiteko jardueretan laguntzea



Oharrak

* Sammelsurium hitz alemanak (askotan ironiaz erabiltzen da) sailkatu gabeko gauzen nahasketa esan nahi du; behe-alemaniar esamolde zahar batetik dator, eta janari-hondarrez osatutako plater bat deskribatzen du.

** Proiektuaren ideia oinarritzen da "REMIDA"ren ikuspegi eta esperientzietan. Proiektu kultural hori Reggio Emilia (Italia) hirikoa da, eta hondakinezko materialen jasangarritasunean, sormenean eta ikerketan jarduten dute (ikus): https://remida.reggiochildrenfoundation.org/?lang=en


Proiektuan hein batean arrakastaz burututako erronka bakarretako bat zera izan zen, parte hartzen dutenei ikusaraztea ikaskuntza eta lantegiko lana batera egitea zentzuzkoa dela eta ondorio positiboak dituela, haietako askok, beraien kulturagatik eta jatorrizko herrialdean izandako ikas-ibilbideagatik, hizkuntza ikasteko ezagutu duten modu gramatikal hutsarekin baino aise gehiago.

Nork

- Aurretik eskola-esperientzia gutxi izan duten errefuxiatuak eta migratzaileak, kultura eta belaunaldi artekoak
- Eskualdeko kultura- eta hezkuntza-erakundeak, haur-eskolak, enpresak eta dendak

Nola

- Oinarrizko hezkuntzako eskolak emanez (3 ordu egunean, 5 egun astean), barne direla A1 mailako irakurketa eta idazketa eta alfabetatzea, oinarrizko aritmetika, ordenagailuen erabilera (IKT) eta oinarrizko hezkuntzako beste arlo eta gai batzuetako tailer osagarriak.
- Hilabete bakoitzeko "proiektu-aste" praktiko bat, non ikasleek modu praktikoan lan egiten duten lantegietan (zura, metala, bizikleta, joskintza) lan-munduarekin harremanetan jartzeko eta tresna eta teknika desberdinekin lan egiteko; makina eta materialekin lan egitea, hiztegi berria ikasiz
- Lantegietan sortutako objektuak (altzariak, apalategiak, kaxak, dekorazioa, etab.) biltegian eraikitzen dira (eraikuntzako atoia)
- Sobran duten materiala sormen-lanetan berrerabiltzeko eta birziklatzeko dohaintzan eman nahi duten eskualdeko lankidetza-erakundeak (fabrikak, enpresak, dendak) bilatzea
- Materialen bilduma biltegian aurkeztea, modu estetiko eta interesgarrian, eta haur-eskolekin lan egitea curriculumean eskaintzeko



URRATSEZ URRATSEKO GIDA

Lan praktikoko asteko egun baten adibide bat:

1. Bilera ikasgelan, lantaldeak osatzea, ikasleek landu nahi dituzten tailerren arabera (joskintza, zura, bizikleta, metala)
2. Talde bakoitzarentzat eremu bakoitzeko artikuluak eta hiztegi berria duten txartelak prestatzea (adibidez, josteko makina, jostorratza, oihalak, hainbat tresna, bihurkina, materialak, makinen argazkiak, etab.). Hiztegia artikuluekin zuzen parekatzea, kartelak egitea eta beste taldeei aurkeztea
3. Lantalde bakoitzean hitz egiten da, ondoren, lantegian modu praktikoan lan egiten den bitartean, egin beharreko urratsei buruz, eta hitz berriak erabiltzeko esaldiak idazten dira (josi, torlojutu, mailukatu, etab.). Azkenik, apalen edo kaxen tamaina ere kalkulatzen da eta biltegian jartzen da
4. Talde-lana hezitzaile batekin, trebetasun berriak praktikatuz eta hiztegi berria ikasiz
5. Egin eta ikasi denari buruz eta lantegietan egin beharreko hurrengo urratsei buruz hausnartzea

Harremanetarako

Braunschweig GmbH Helduentzako Hezkuntza Zentroa

Alte Waage 15, 38100 Braunschweig, Alemania

Laureen Petzold: ✉ laureen.petzold@vhs-braunschweig.de

www.vhs-braunschweig.de

IKASTEKO ESPAZIOA:

STADTGARTEN BEBELHOF HIRI-BARATZEKO PROIEKTUA

Zer

Ikasteko aukerak antolatzen ditugu, jasangarritasunari buruzko gaietan ekarpen praktiko eta teorikoak eginez, hala nola elikadura osasuntsu eta jasangarriaren ingurukoak, fruta- eta barazki-landareak ezagutzea, ingurumen-hezkuntzako tailerrak, mugikortasunari eta energia alternatiboari buruzko informazioa, kontsumo jasangarria. Jarduera guztiak gure baratzean egiten dira, ikasteko toki irekia baita, ohiko ikasgelaren ordez.

Baratzeko atmosfera irekia ezin hobea da ikaskuntza informalerako, ikasgela itxietako ikaskuntza formalaz bestelako aukerak eskaintzen baititu.

Zergatik

- Baratzeak baldintza ezin hobeak eskaintzen ditu hainbat kolektiborekin eta ikuspegi metodologiko desberdinekin jasangarritasunari buruz ikasteko aukerak garatzeko eta gauzatzeko
- Azken urteotan, gero eta zailtasun gehiago dituzte helduen hezkuntzan ari diren erakunde tradizionalen jardueren antolatzaileek, eskola-hezkuntza formal eskasa duten helduengana iristeko. Pertsona horiek maiz gizartetik baztertuta egoten dira (edo sentitzen dira); beraz, beharrezkoa da kolektibo horrentzat prestatzen diren eskaintzak erraz eskuratzeko modukoak izatea. Gure ikastaroak inguru ezagunean (hiriko auzoan) eta doako espazio ireki batean (baratzean) egiten dira, eta nahi duten pertsonek parte har dezakete, aldez aurretik izena eman gabe, ez ofizialki ez formalki



Nork

- Maila akademiko baxuko helduak
- Pertsona migratzaileak eta errefuxiatuak
- Familiak
- Bigarren aukerako eskolako klaseetan ari diren gazte helduak
- Tokiko erakundeak, batez ere baratzea dagoen auzokoak

Nola

- Haurrentzako sukalde-eskola bat eskaintzen da baratzean berean egindako sukalde irekian
- Familiak beraien seme-alabekin etortzen dira baratzera, eskolaren edo haur-eskolaren ondoren (eguneko tenore hori faktore garrantzitsua da: amak hona etortzen dira, bestela ere etxeko sukaldean ariko liratekeelako lanean; asteburuetan edo gauez ez lirateke etorriko)

Gai posibleak:

1. Zergatik "Bio"?
2. Zer esan nahi du "bidezko merkataritza" esapideak?
3. Hondakin plastikoak, haragiaren kontsumoa, elikagaien hondakinak, “km 0” eta sasoiko elikagaiak, janari lasterra eta komenientziaren araberakoa, elikadura osasungarria haurrentzat



URRATSEZ URRATSEKO GIDA

Prestatu beharreko errezetei buruz hitz egiten da taldean. Garrantzitsua da baratzeko eta garaiko fruta eta barazkiak erabiltzea beti

1. Bazkarirako behar diren frutak eta barazkiak baratzean biltzen dira
2. Irakaslea arduratuko da otordua prestatzeko beharrezkoak diren osagaiak erosteaz
3. Hitzaldi edo aurkezpen teorikoak eman beharrean, jarduera errazten duen pertsonak ekarpen txikiak egiten ditu prozesu osoan zehar (baratzeko gauzen bilketan, prestaketan eta dastaketan) elikadura jasangarri eta osasungarriari buruz, parte hartzen dutenei gogoeta eginaraziz beraien kontsumo-irizpideei buruz eta, zortea badu, beraien eguneroko bizitzarako kontsumo-alternatibak sustatuz
4. Bilera bakoitzaren amaieran, egun horretan prestatutako plateren errezetak jasotzen dituzte parte-hartzaileek, eta horrekin batera, ikastaroan aipatutako gainerako gaiei buruzko informazioa (adibidez, garaiko fruta eta barazkien egutegia, erosteko aholkuak, marka ekologikoen eta bidezko merkataritzako produktuen zerrenda)

Oharrak

- Bi faktore erabakigarri daude ikaskuntza-prozesuan: batetik, ekintzara bideratutako ikaskuntza. Eta, bestetik, informazio garrantzitsua transmititzeko modua
- Bereziki, ezinbestekoa da bermatzea jarduera errazten duen pertsonak ez duela "instruktore moral" gisa jokatuko
- Garrantzitsua da, halaber, errezeta eta informazio guztiak hizkuntza ulergarrian idatzita egotea. Gainera, garrantzitsua da errezetetan osagai gutxi batzuk soilik aipatzea, eta guztiak supermerkatuan erraz eskuratzeko modukoak izatea

Harremanetarako

Braunschweig GmbH Helduentzako Hezkuntza Zentroa

Alte Waage 15, 38100 Braunschweig, Alemania

Ute Koopmann, posta elektronikoa: ute.koopmann@vhs-braunschweig.de

Facebook.com/bebelhof

NORVEGIA

Arendal

BIZIKLETA-PRAKTIKAK

THE CHURCH CITY
MISSION SKATTKAMMERET

“BERDINEN” ARTEKO
LAGUNTZA JATORRIZKO
HIZKUNTZAN



BIZIKLETA-PRAKTIKAK

Zer

Astean behin bizikleta-ikastaroak eskaintzea Arendaleko Helduen Ikaskuntza Zentroan (Arendal voksenopplaering-AVO) parte hartzen duten pertsona guztientzat, bereziki hasiberrientzat.

Zergatik

- Bizikleta kostu txikiko garraiobidea da eta bizimodu osasungarria sustatzen du
- Kultura batzuetan neskei ukatzen zaie bizikleta edukitzeko aukera eta, beraz, alde batetik bestera ibiltzea mugatua izaten dute
- Txirrindularitzak bere kasa mugitzeko aukera ematen dio jendeari, eta askatasun sentsazioa eragiten du
- Arendaleko Udalak garraiobide jasangarriak erabiltzeko eskatu die biztanleei, eta bizikleta erabiltzea, noski, biziki gomendatzen die
- Gure proiektua Siriako mugimendu batean inspiratu zen: Jalla, goazen bizikletaz!



ICA CUL ENV LOC SOC

Nork

- Arendaleko AVO zentroko ikasleak, bai emakumezkoak bai gizonezkoak
- Ikasleei irakasten ari den pertsonari laguntzeko boluntarioak
- Txirrindularitza-ezagutzak dituzten ikasleek eta boluntarioek osatzen dute boluntario-lana.
- Tokiko boluntarioek hizkuntza irakasten dute eta bertakoen eta iritsi berrien arteko harremana indartzen dute


Nola

- Tokiko GKE batek (Skattkammeret Church City Mission) bizikletak eta kaskoak maileguan ematen ditu
- Ikastaroak bizikletaz ibiltzeko egokiak diren inguru hurbiletan egiten dira
- Ikasleek ikastaroan izena eman dezakete, antolatzaileek bidalitako testu-mezuen bidez edo eskolako liburutegiko zerrenda baten bidez
- Ikastaroa ikasturteko programazioaren barruan dago
- Ikastaroak ikasle-kopuru mugatua du eta iritsi ahala onartzen da jendea, bete arte
- Kopurua mugatzen da parte-hartzaile bakoitzak behar duen laguntza izatea bermatzeko



URRATSEZ URRATSEKO GIDA

1. Bizikletak erosteko dirua biltzea edo tokiko GKEei bizikletak maileguan emateko eskatzea
2. Irakasle egokiak bilatzea
3. Boluntarioak biltzea
4. Parte-hartzaileak biltzea
5. Bizikleta-ikastaroa ikasturteko programazioan sartzea gomendatzen dugu. Horri esker, edozein ikaslek parte har dezake, eskola-orduetan garatzen delako
6. Ikastaroa emateko leku egokia aurkitzea



Harremanetarako

Arendaleko Helduen Ikaskuntza Zentroa (Arendal voksenopplaering)

Kystveien 2b, 4841 Arendal, Norvegia

Gro Evensen, posta elektronikoa: gro.evensen@arendal.kommune.no

THE CHURCH CITY MISSION SKATTKAMMERET

Zer

The Church City Mission erakunde inklusiboa da, irabazi-asmorik gabea. Norvegia osoko herri eta hirietan lan egiten du, era askotako arrazoiak tartean direla bizitzan zailtasunak dituzten pertsonekin. Haren ikuspuntua da hiriko pertsona guztiek errespetua, justizia eta zaintza behar dituztela.

Skattkammeret ekimena The Church City Mission-ek zuzentzen duen establezimendu bat da, Arendaleko herritarrei bizikletak, eskiak, botak, kanpin-dendak, kayakak, lozakuak, futboleko zapatilak, patinak eta askoz gauza gehiago, doan eskuratzeko aukera eskaintzen diena.

Langile gehienak zailtasunak izan dituzten eta orain berriro gizartean parte hartzeko aukera duten pertsonak dira. Bigarren eskuko denda bat ere badago Skattekammereten, eta han praktikak egiten dituzte Arendaleko Helduen Ikaskuntza Zentroko (AVO) ikasleek.

Zergatik

- Arendaleko haur eta gazte guztiei bermatzeko, familiaren diru-sarrerak edozein direla ere, kirol eta mendi ibilaldiak egiteko ekipamenduak eskuratzeko aukera
- Pertsona zaurgarri eta baztertuei aukera bat eskaintzeko, lana eta komunitatean partehartzea eskainiz
- Dendaren bidez, jarduera jasangarriak bultzatu nahi dira, ekipoak maileguan emanez, berriak erosi beharrean
- The Church City Mission erakundeak jendeari aktiboagoa izateko eta bizimodu osasungarriagoa eramateko aukera ematen dio



CUL ENV LOC SOC

Nork

- Arendaleko The Church City Mission erakundeak. Skattkammeret gunea zabalik dago jende guztiarentzat, eta batez ere hirian bizi diren 10.000 haur eta gazteentzat egiten du lana.

Nola

- Denda egunero dago irekita eta hiriaren erdian dago
- Erabiltzaileek identifikazio bat eman eta bezero gisa erregistratu behar dute, eta akordioa sinatzen dute Church City Mission-ekin
- Langileek ekipo egokia aurkitzen lagunduko diote eta datu-basean erregistratuko dute.
- Dendarekin adostutakoaren arabera ekipoa maileguan eska daiteke
- Normalean ez da kobratzen kaltetutako edo galdutako ondasunengatik. Hala ere, erabilera desegokia behin eta berriz errepikatzen bada, edo bandalismoaren susmorik badago, pertsona horri ukatzen ahal zaio zerbitzua hortik aurrera erabiltzea
- Ekimena finantzatzeko diru-funtsak biltzen dira eta baliabide propioak erabiltzen dira. Arendaleko udalak hasieran diru-funtsa bat eman zuen Skattkammeret sustatzeko
- Dendak arrazoizko prezioan ordaintzen du lekuaren alokairua, merkatuko preziotik behera



URRATSEZ URRATSEKO GIDA

1. Dirua biltzea eta udaletik laguntza lortzea
2. Leku egokia aurkitzea, ahal dela hiriaren erdian
3. Kudeatzailetza kontratatzea, behar diren gaitasunak kontuan hartuta
4. Langileak biltzea, ahal dela lana lortzeko zailtasunak izan dituzten pertsonak
5. Beharrak antzematea, estrategia bat zirriborratzea eta horren arabera ondasunak erostea
6. Langileei prestakuntza eskaintzea
7. Marketina



Harremanetarako

The Church City Mission (Kirkens Bymisjon)

Vestre Gate 2, 4836 Arendal, Norvegia

posta elektronikoa: skattkammeret@skbat.no

“BERDINEN” ARTEKO LAGUNTZA JATORRIZKO HIZKUNTZAN

Zer

Errefuxiatuei hizkuntza berri bat (norvegiarra) irakastea, horretan lagunduko duten boluntarioak eta hizkuntzaren ezagutza handiagoa duten ikasleak bilduz. Laguntzaile horiek ama-hizkuntza bera duten ikasleekin parekatzen dira.

Helduen Ikaskuntza Zentroak ikasketa gutxi, edo batere ez, izan ez duten errefuxiatu eta etorkin ugari hartzen ditu, eta horietako asko analfabetoak dira. Hori oztopoa izaten da ikastaldearentzat, eta ikas-prozesua zailtzen du. Ama-hizkuntza bereko lagunen laguntzari esker, irakasleek eta ikasleek elkarren arteko komunikazio hobea lortzen dute, eta norvegiera ikastea errazten da. Ikas-molde horren emaitza ona izaten da alderdi askotatik, izan ere, irakasleen eta ikasleen arteko komunikazioa eraginkorragoa da, eta laguntzaileek lan-esperientzia baliotsuak eskuratzen dituzte.

Zergatik

- Irakasleek lehenago eta modu eraginkorragoan ezagutuko dituzte ikasleak eta haien beharrak
- Irakasleek modu eraginkorragoan ikusiko dituzte ikastaldeak planteatzen dituen erronkak eta aukerak
- Irakasleentzat lagungarria izanen da taldean izatea lehen ikasle izatearen esperientzia duen laguntzaile bat
- Ikasleen parte hartzea gero eta handiagoa izanen da, gertatzen ari dena hobeki ulertzen dutelako
- Ikasgelan ematen den informazioa ez ulertzeagatik sortzen den frustrazioa murrizten da, eta orobat sistemak, esparruak, metodologia, alderdi kulturalak, burokrazia eta abar ez ulertzeak ekartzen dituen oztopoak ere murrizten dira
- Parte hartzen dutenek baliabide gehiago izango dituzte eskura. Beraz, azkarrago jasoko dute laguntza
- Bere ama-hizkuntzan laguntzen duen pertsonak laneko trebakuntzako esperientzia eta irakasteko metodologia-ikastaroa jasoko ditu. Gainera, diploma bat eta gomendio-gutun bat jasoko ditu, aurrerago erabiltzeko
- Ama-hizkuntza bereko ikaskideak bigarren hizkuntzan dituen trebetasunak hobetuko ditu
- Talde batzuek, beharbada, etekina atera lezakete, ama-hizkuntza bereko berdinen arteko laguntza konbinatuz gailu teknikoekin, esaterako hizkuntza-aplikazioekin



Nork

- Hizkuntza berria ikasi behar duten pertsonak
- Askotan errefuxiatuak eta etorkinak dira, bizileku berriko hizkuntza ikasi behar dutenak. Horietako askok ingelesa ere ikasi behar dute

Nola

- Irakasleei eta hezitzaileei ikasgelan edo bestelako ikaslekuetan lagunduz, ezagutza nahiz ikasketa-programa zabalduz
- Ikasleei laguntza emanez, irakasleei ulertzeko eta haiekin komunikatzeko, informazioa beraien ama-hizkuntzan azaltzeko eta transmititzeko aukera izan dezaten
- Hitzak, zereginak eta informazioa azaltzen lagunduz
- Gelan erabili ohi den edozein gailu tekniko erabiltzen lagunduz
- Ama-hizkuntza bereko laguntzaileek ikasleen beharrak komunikatzen lagun dezakete; hori nabarmena da lagunarteko solasaldi txikietan
- Ikasgelako edo ikaskuntzaren inguruko gaizki-ulertuak saihestuz



URRATSEZ URRATSEKO GIDA

1. Laguntza behar duten ikastaldeak identifikatzea eta argitzea zer hizkuntza-laguntza den garrantzitsuena talde horrentzat
2. Hizkuntza hori ama-hizkuntza duten hiztunak biltzea ikasleen eta boluntarioen artean. Bigarren hizkuntzan maila aurreratua eta motibazio handia eskatu behar zaie, bai eta behar diren trebetasun pertsonalak ere
3. Ama-hizkuntzan lagunduko duten pertsonentzako nahitaezko ikastaroak
4. Ikaskuntza-erakundearekin eta ama-hizkuntzako laguntzaileekin hitzarmena sinatzea. Lan-kargari eta sinatu duten ordu-kopuruari buruzko informazio argia eman behar da kontratuan. Ama-hizkuntzan laguntzen dutenek konfidentzialtasun-formulario bat sinatu behar dute
5. Irakasleek ikasturtean zehar ama-hizkuntzako laguntzaileen jarraipena egin behar dute, informazioa eta laguntza emateko.
6. Hizkuntza-laguntza jaso zuten ikasleak ebaluatzea



Harremanetarako

ArendalekoHelduen Ikaskuntza Zentroa (Arendal voksenopplaering)

Kystveien 2b, 4841 Arendal, Norvegia

Ingrid Fløistad, posta elektronikoa: Floistad@arendal.kommune.no

POLONIA

BIAŁYSTOK

HAJNOWKA
ZENTRALA

TOKIKO JARDUEREN
PROGRAMAK

ANIMAZIOA ETA
ETORKIZUNEKO
TAILERRA



HAJNOWKA ZENTRALA

Zer

Geltokiko eraikina hondatua eta oso kaltetua zegoen, eta orain gizarte- eta kultura-zerbitzuen zentro bihurtzen ari da. Helburua da antzerki emanaldiak antolatzea, erakusketak, arte-lantegiak, eta orobat tailer sozialak eta jarduerak adinekoentzat, umeentzat eta aniztasun funtzionala duten pertsonentzat. Geltokiko funtzioak mantenduko dira, hau da, itxarongela txiki bat eta txarteldegiak. Udalak eraikinaren erabilera eskaini zion bertako GKE bati, Pocztówka Kultur Elkarteari, hain zuzen ere.

Zergatik

- Hiriko adin eta talde sozial guztien eskura egonen den leku atsegina sortzea
- Tokiko GKEak eta haien liderrak konbentzitzea estrategia hobea dela lankidetza lehia baino
- Biztanleak gizarte- eta kultura-jardueren plangintzan esku hartzera bultzatzea
- Eginkizun publikoak gobernuz kanpoko erakundeen partzuergoen esku uztea sustatzea, banakako erakundeen esku utzi beharrean
- Hezkuntzaren inguruko jardueren eskaintza handiagoa egitea hiriko biztanleei
- Geltokia dela aprobetxatuta, bertako kultura sustatzea turistei begira



IGA ICA LOC SOC

Nork

- Lekua Pocztówkako Kultur Elkarteak kudeatzen du
- Proiektuan parte hartzen dute Hajnowka hiriko Udalak, erakundeen partzuergo batek eta Reggio Emilia (Italia) hiriko La Polveriera izeneko ekimenak
- Kolektibo hartzaileak tokiko GKEak eta komunitatea dira

Nola

- Tokiko gobernu-erakundeen eta gobernuz kanpoko erakundeen ordezkariek osatutako Ekimen Talde bat sortzea
- Kontsulta-bilerak egitea (adibidez, ikerketa-ibilaldiak) Hajnówka-ko biztanleekin
- Tokiko gobernuen eta gobernuz kanpoko erakundeen arteko lankidetza-programan aldaketak egitea, eginkizun publikoen azpikontratazioa lehentasunez GKEen arteko partzuergoen esku uzteko, erakunde pribatuen esku utzi beharrean
- Tokiko GKEak aktibatzea, hirian egiten diren gizarte-jarduerei buruz estrategikoki pentsatzera animatuz



URRATSEZ URRATSEKO GIDA

1. Hiriak, biziberritze programaren barruan, gizarte eta kultur zerbitzuetarako eskaintzen ahal duen leku (eraikin) bat bilatzea.
2. Mota horretako zentro bat elkarrekin zuzendu dezaketen GKEekin animazio-lana egitea.
3. Eraikinaren eta inguruaren azterketa sakona egitea gizarte nahiz hirigintza aldetik.
4. Instalazioaren funtzionamenduaren kontzeptu soziala garatzea.
5. Modernizatzeko, eraberritzeko eta behar diren lanak egiteko dirua lortzea.
6. Hajnówka-ko Udalaren eginkizun publikoen azpikontratazioa GKEen partzuergoei esleitzea gauzatzea.



Informazio gehiago

https://publicystyka.ngo.pl/hajnowka-odnowa-rewitalizacja-to-nie-tylko-inwestycje-w-budynki

Harremanetarako

Posta Txartelen Kultur Elkartea (Stowarzyszenie Kulturalne Pocztówka)

Policzna 40, 17-250 Klceszzele, Polonia

Posta elektronikoa: biuro@pocztowka.eu,

www.pocztowka.eu

GKEei Laguntzeko Zentroa (Ovrodek Wspierania Organizacji Pozarzàdowych)

Modlinska 6/U3, 15-066 Bialystok, Polonia

Posta elektronikoa: biuro@owop.org.pl,www.owop.org.pl

Oharrak

Eraikina zaharberritzearen lehen etapetan dago oraindik, baina dagoeneko hainbat jarduera egiten ari dira bertan, eta udalaren eginkizun batzuk erakundeek egiten dituzte, elkarlanean.

TOKIKO JARDUEREN PROGRAMAK


Zer

Tokiko komunitatean gizarte-bazterkeriaren arriskuan dauden pertsonak aktibatzea, tresna hauek erabiliz: hezkuntza, gizarte-aktibazioa, aktibazio profesionala eta osasunari lotutako ekintzak, batez ere mendekotasunen prebentzioaren eta osasun mentalaren ingurukoak.

Tokiko Jardueren Programak udal-mailan aplikatzen dira subsidiariotasun-printzipioari jarraikiz. Gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonek bizi diren tokiko komunitatearen laguntza jasotzen dute eta bertan aktibatzen dira.

Zergatik

- Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dagoen pertsona bat alderdi askotatik aktibatzea aldi berean, besteak beste, gizarte-trebetasunak hobetzea, lanbide batean hastea, lanbide-heziketako ikastaro baten bidez (tokiko lan-merkatuan zentratuta), hezkuntza formala bukatzea edo osatzea, prebentzio-medikuntza (mendekotasunak, familia-terapia eta prebentzio-azterketak barne)
- Gizarte-ongizatean, hezkuntzan nahiz tokiko garapenaren arloan ari diren tokiko erakundeen (GKE) eta tokiko enpresen parte-hartzea sustatzea gizarte-bazterketaren arriskuan dagoen pertsonari laguntzeko
- Tokiko lan merkatuan lanbide-praktikak osatzeko eta lana aurkitzeko laguntza
- Parte-hartze soziala areagotzea, tokiko ekimen bat abian jarriz edo boluntario-jardueraren bati hasiera emanez




Nork

- Tokiko jardueren programak gobernuz kanpoko erakunde baten eta udal baten artean gauzatzen dira, hau da, udal horren izenean gizarte-ongizateko edo kulturaren arloko zentro batek eramaten du aurrera proiektua
- Orain arte, Gobernuz Kanpoko Erakundeei Laguntzeko Zentroak (OWOP) tokiko jardueren programak egin ditu udal hauekin lankidetzan: Grajewo, Suchowola, Javwivy, Jasionówka, Rajgród, Lipsk eta Gródek
- Ekimenaren hartzaileak gizartearen bazterketa jasateko arriskuan egonik gizarte-ongizateko zerbitzuek artatzen dituzten pertsonak dira, udalerri zehatz batean bizi direnak

Nola

- Eskarmentua duen lantaldea osatzea: gizarte-langilea, tutoretza, lan-merkatuko agentea, ikasketa-aholkularitza, psikologoa, abokatua
- Banakako laguntza-ibilbide bat definitzea parte-hartzaile bakoitzarentzat
- Laguntza soziala, hezkuntzakoa eta profesionala ematea, barne direla ikastaroak, entrenamenduak, aholkularitza eta lantokiko praktikak
- Lana aurkitu eta mantentzeko laguntza
- Tokiko komunitatearen parte-hartzea pertsona jakin baten aktibazio sozialean



1. Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonak biltzea; lan bat eta tokiko komunitatearen aldeko jarduera batzuk egitea onartzeko prest egon behar dute
2. Tutore batek egitea pertsona bakoitzaren diagnostikoa gizarte, lanbide, hezkuntza eta osasunaren aldetik
3. Banakako laguntza-ibilbide bat definitzea parte-hartzaile bakoitzarentzat
4. Parte-hartzaileen talde hautatu bati eskaintzea trebetasun sozialak eta lanbidea ikasteko ikastaroak, eta lanbide-praktikak egitea
5. Laguntza psikologikoa, terapeutikoa, juridikoa
6. Tokiko lan-merkatuan enplegua bilatzeko edo merkataritza-jarduera batean hasteko bitartekotza egitea
7. Komunitatearentzako tokiko ekimenak abian jartzea edo boluntariotza-jarduera bat hastea



Oharrak

- Aktibazio profesionalean parte hartzen dutenen erdiek lana aurkitzen dute proiektuan parte hartu ondorengo 30 eguneko epean
- Proiektuan parte hartzen duten ia guztien (%100) eraginkortasun soziala handitzen da

Harremanetarako

GKEentzako Laguntza Zentroa

Modlinska 6/U3, 15-066 Bialystok, Polonia

Posta elektronikoa: biuro@owop.org.pl,

www.owop.org.pl

ANIMAZIOA ETA ETORKIZUNEKO TAILERRA

Zer

Animazioaren eta etorkizuneko tailerraren helburua da tokiko komunitatea inplikatzea etorkizunerako ideiak sortzeko eta tokiko arazoak konpontzeko eginkizunetan (biztanleak, gobernuz kanpoko erakundeetako ordezkariak eta bertako instituzioetako langileak, besteak beste, kultura nahiz gizarte-ongizateko zentroetakoak, liburutegikoak eta abar). Egiten ari diren bileretan irtenbide espazial edo funtzional espezifikoak lantzen ari dira.

Zergatik

- Komunitatearen parte-hartzea eskasa izaten da, besteak beste, pertsonek beren burua plangintza-prozesutik kanpo ikusten dutelako. Egoera horretarako alternatiba bat dira tailer hauek
- Hainbat talde inplikatzeko aukera ematen duen tresna da, eta tokiko komunitatean aldaketa bat sustatzeko erabiltzen da
- Elkarlana irtenbide bat diseinatzean: izan ere, ekimen hau bultzatzen dutenen ustez, komunitate bateko kideen jarduera behar-beharrezkoa da benetako aldaketa eragiteko, eta aldaketa hori baliabideetan oinarrituta bakarrik egin daiteke
- Tresna hori erabiliz pertsonek beraien inguruko arazoen konponbidea aurkitzen ahal dute
- Jendea kudeaketa komunitarioaren prozesuan parte hartzera bultzatzeko metodoetako bat da tailerra
- Tailer horiek leku baten identitatea eraikitzen dute, partaide izateko sentimendua, tokiarekin identifikatzeko gogoa



IGA ICA LOC SOC

Nork

- Tokiko komunitate batekin lan egiten duen gobernuz kanpoko erakunde batek antola dezake tailerra, tokiko agintarien eta buruzagien laguntzarekin
- Merezi du hainbat erakundetako langileak gonbidatzea, hala nola komunitate-zentrokoak, gizarte-ongizateko zentrokoak, liburutegikoak

Nola

- Tailerra jostaketa bat da. Ideiak sortzen laguntzen duten etapetan banatuta dago: ez-konbentzionalak, baina tokiko komunitatearen beharrei erantzuteko egokiak
- Parte hartzen duten pertsonek lanaren fase guztietan esku hartzen dute: diagnostikoa, konponbidearen diseinua, eremu-kontsultak eta ideiarik onenaren lehiaketa
- Tailerraren lehen fasean, baliabide-mapa batekin egiten dugu lana
- Tailerraren balioa nabarmen handitzen da bertan elkartzen direnean hainbat esperientzia izan dituzten pertsonak, lekuko biztanle arruntak, baina haiekin batera hainbat diziplinatako espezialistak ere bai (adibidez, artea, arkitektura, gizarte-lana, soziologia edo psikologia arloetakoak)
- Tailerra amaitzeko, bizilagunekin bilera egiten da, bertan kontzeptu guztiak aurkezten dira eta guztien artean inplementatuko den kontzeptua aukeratzen da
- Horri esker, talde bateko kideak integratu egiten dira, komunikazioa, lankidetza eta negoziazioak eskatzen dituen talde-prozesu batean parte hartzen dute. Parte hartzen dutenek beren komunitateari buruzko ezagutzak sakontzen dituzte, aldaketarako ideiak bilatzen dituzte
- Horrez gain, beraien inguru hurbileko arazoei irtenbideak aurkitzeko aukera bat da jendearentzat, eta herritarrak komunitatearen kudeaketa-prozesuan sartzeko metodoetako bat ere bada



URRATSEZ URRATSEKO GIDA

1. Beraien inguruneetan tailerrak egin nahi dituzten liderrak identifikatzea
2. Herriko komunitatea irudikatzen duten 15-25 lagun tailerrean parte hartzera gonbidatzea. Komeni da tokiko erakundeekiko harreman-sarea eta lankidetza erabiltzea
3. Tailerraren prestaketa teknikoa eta antolaketa (tailerra egiten ari denean kanpora atera eta landa-ikerketarako ibilaldi txiki bat egiteko aukera emanen duen leku bat da egokia, hartara, bertan landu den ideia komunitate batean eta pertsonen artean egiaztatzeko aukera izanen da; idazteko materiala; lekuko mapa bat)
4. Tailerraren azken momentuan herritarrak gonbidatzea, martxan jarri nahi duten ideia onenaren alde bozkatzeko
5. Tailerra etapatan egitea, taldeka lan eginez: diagnostikoa, mapak erabiltzea (diagnostikoa potentzialetan ere oinarrituko dugu, mapan markatuz garrantzitsuak diren eta gustatzen ez zaizkigun tokiak), ideiak sortzea, irteera egitea eta ideiak egiaztatzea (komeni da aditu batzuk gonbidatzeko aukera baloratzea, ideia horien inguruko informazio teknikoekin edo ideiak aplikatzeko aukerekin laguntzeko), talde bakoitzak ideia bat aukeratzea, haren aurkezpena prestatzea, ideiak aurkeztea, interesgarriena hautatzeko bozketa egitea
6. Ideia irabazlearen inplementazioa..., horra hor punturik garrantzitsuena. Une horretan, oso garrantzitsua da lankidetzan aritzea irtenbide jakin bat ezarri edo gauzatzeaz arduratzen diren tokiko erakundeekin



Harremanetarako

GKEentzako Laguntza Zentroa

Modlinska6/U3, 15-066 Bialystok, Polonia

Posta elektronikoa: biuro@owop.org.pl,

www.owop.org.pl


PORTUGAL

PONTE DE SOR

BOLUNTARIOTZA
ESPERIMENTATZEKO
EGUNAK

BELAUNALDIEN
ARTEKO DANTZA

TEKNOLOGIA-
TAILERRAK



VOLUNTEERING EXPERIMENTAL DAYS

Zer

Askotariko jarduerez betetako aste oso bat, guztien onurarako boluntario bihurtzeko inspirazio-iturria izan dadin adin guztietako jendearentzat.

Zergatik

- Tokiko komunitateari boluntariotza egun batez probatzeko aukera emateko
- Komunitatean dauden proiektuetarako boluntario berriak biltzeko



IGA LOC SOC

Nork

- Jarduerak egiten diren elkarteetako (eskolak, zaharren egoitzak, haur-eskolak, aniztasun funtzionala duten pertsonentzako eskola/etxea, gizarte-zentroa, osasun-zentroa, kultura-zentroa eta udal-liburutegia) boluntarioen tokiko sareak (Bs3) parte hartzen du jardueran
- Erakundeen erabiltzaileak
- Parte hartzen duten boluntarioak

Nola

- Elkartutako erakundeek ekimen horren barruan sartu nahi luketen jarduera iradokitzen dute
- Taldeek boluntarioak izan behar dituzte beti, eskarmentua dutenak nahiz ez dutenak



URRATSEZ URRATSEKO GIDA

1. Eguna eta ordua, jarduera eta behar diren boluntarioen kopurua ezartzea
2. Programa idaztea, jardueren mapa osoa azalduz, eta boluntarioekin partekatzea
3. Antolatutako jardueretan izena emateko prest dauden boluntarioak lortzea
4. Boluntarioei eginkizunak aurkeztea, erakundeari buruzko informazioa ematea eta lana zehaztea
5. Jardueren argazkiak ateratzea eta boluntarioei nahiz erabiltzaileei informazioa eskatzea



Harremanetarako

Caminhar - A.C.A.S.

Rua Movimento das Forças Armadas, 17,
7400-246 Ponte de Sor, Portugal

Elisabete Oliveira,
posta elektronikoa:
lisa@caminhar.org

BELAUNALDIEN ARTEKO DANTZA

Zer

Beste belaunaldi bateko pertsonekin dantza egitea dibertitze hutsagatik, elkarrekin egoteko gozamena berriro aurkitzeko eta elkarrengandik ikasteko. Belaunaldien arteko dantzaren helburua da bi belaunaldi –umeak eta adineko pertsonak– elkartzea, eta dantza bera da haien arteko elkarreragina ahalbidetzen duen bitartekoa.

Zergatik

- Bi belaunaldiren arteko interakzio osasungarriko uneak eskaintzea
- Gaitasun motorra, psikomotorea, kognitiboa eta soziala garatzea
- Ongizate sozio-afektiboa eta autonomia sustatzea, interakzioaren eta elkarren laguntzaren inguruan



IGA LOC

Nork

- Hirugarren Adinekoen Unibertsitateko dantza-klaseetara joaten diren adineko ikasleak (50 urtetik 80 urtera bitartekoak eta hortik gorakoak)
- Erakundearen udako aisialdi-zentrora joaten diren umeen taldea (4-10 urte)

Nola

- Biribilean eta bikoteka egiten dira dantzak. Bikoteak adineko pertsona batek eta ume batek osatzen dituzte
- Musika folklorikoa eta munduko hainbat tokitako aretoko dantzak erabiltzen dira (adinekoen dantza-eskoletan erabili ohi direnak)
- Dantza errazak erabiltzen dira (koreografia edo mugimendu-multzoaren aldetik), adineko jendearentzat egokiak, horrek umeei ere laguntzen baitie erraz egiten



URRATSEZ URRATSEKO GIDA

1. Data, ordua, tokia, iraupena, behar diren materialak ezartzea eta bi taldeen ezaugarriei buruzko informazioa trukatzea
2. (Egunean berean) Hasierako hoztasuna eten: parte-hartzaileen arteko agurra
3. Dantza-irakasleak mugimenduak, pausoak eta posizioak azaltzen ditu, eta gero talde osoak musikaren erritmoan dantzatzen du. Dantza eta dantza artean, adinekoek eta txikiek tarte bat egin dezakete solasean
4. Dantza bat baino gehiago egiten dira, parte-hartzaileek emandako informazioaren arabera (ez gutxi, ez asko)
5. Azkenean elkarri eskerrak eman eta agur esaten diogu



Harremanetarako

Caminhar - A.C.A.S.

Rua Movimento das Forças Armadas, 17, 7400-246 Ponte de Sor, Portugal

Ana Santos, posta elektronikoa: psicomotricidade.anasantos@gmail.com

Tânia Lopes, posta elektronikoa: tanialopes@caminhar.org

TEKNOLOGIA-TAILERRAK

Zer

Nerabeek teknologia erabiltzeko dituzten trebetasunak adinekoekin partekatzeko tailerrak. Adibidez, Smartphone edo taldeko mezularitzako aplikazioak erabiltzen ikasteko tailer bat, irakasleak nerabeak direla eta ikasleak adineko pertsonak.

Zergatik

- Gazteriari ohikoa ez duen paper bat esperimentatzeko aukera ematea (irakasle gisa aritzea)
- Belaunaldien arteko truke-uneak sortzea
- Erakustea guztiok dugula zerbait irakasteko eta zerbait ikasteko, gure adina edozein dela ere



Nork

- Adinekoak
- Nerabeak
- Jardueraren bideratzailea

Nola

- Bikoteka esertzen dira, eta adinekoek eta nerabeek smartphone baten erabilerak aztertzen dituzte elkarrekin
- Aurrez ezarritako ataza-multzo bati jarraikiz egiten da



Oharrak

- Telefono guztiek hizkuntza-konfigurazio bera duten egiaztatu beharko litzateke
- WiFi pasahitza eskuragarri izatea, telefonoak lehen aldiz konektatu behar izanez gero
- Denbora aurrezteko, komeni da mezu-talde bat sortzea jarduerari ekin aurretik, parte-hartzaileak barnean hartuta

URRATSEZ URRATSEKO GIDA

1. Eguna, ordua eta parte-hartzaileen kopurua (ahal dela, talde ez oso handia) ezartzea
2. Ikasle eta irakasle nerabeen kopuru bera lortzea
3. Gazteak 30 minutu lehenago iristen dira jarduera prestatzeko
4. Boluntarioen taldearekin bilera egitea, smartphonean egin beharreko lanen gida (orokorra) aurkeztuz eta lan guztiak batera berrikusiz. Plana hobetzeko iradokizunen bat izatekotan solastu egiten da, laster gauzatu beharreko zereginen gidaren azken bertsioa izateko. Bertaratuen zerrenda sinatzea eta identifikazio-txartelak ematea
5. Gazteak eta helduak bikoteka jartzeko modua asmatzeko hobe da irudimena erabiltzea, bikote bat osatzen dutela senti dezaten
6. Irakasle rola dutenek smartphone bakoitza WiFi sarera konektatuta dagoen egiaztatzen dute
7. Irakasle nerabeek beren lanak banan-banan egiteko eskatzen diete ikasleei. Jarduera errazten duen pertsonak denbora kontrolatzen du eta irakasleak bideratzen ditu, taldeek lana gutxi gora behera batera egin dezaten
8. Azkenik, boluntarioen eta adineko parte-hartzaileen iritzia eskatzen da



Harremanetarako

Caminhar - A.C.A.S.

Rua Movimento das Forças Armadas, 17,
7400-246 Ponte de Sor, Portugal

Elisabete Oliveira
posta elektronikoa: lisa@caminhar.org

ESPAINIA

PAMPLONA

HIRIKO BARATZE KOMUNITARIOA
- AUZOLANA

HIRIKO BARATZE KOMUNITARIOA
- LANTEGI IREKIAK: EZAGUTZAK TRUKATZEA

ETXAPE PROIEKTUA: HIRIKO TERRAZA BERDEAK



HIRIKO BARATZE KOMUNITARIOA

- AUZOLANA -

Zer

Hona hemen gure jarduera garrantzitsuenetako bat. Auzolan hitzak elkarlana esan nahi du, helburu komun baten alde eta komunitate osoaren onerako auzokideek elkarrekin egiten duten lana, komunitatea indartu eta kohesionatzen duena. Hilero Auzolan bat antolatzen dugu gure baratze komunitarioa mantentzeko eta garatzeko. Normalean larunbat goizetan egiten dugu. Ahalegin kolektibo horri esker, degradatuta zegoen espazio publiko bat plaza ederra eta xarmagarria bihurtu dugu, barazki eta lorez betetako baratze-mahaiekin. Nekazaritza-lanak giro bizia eskaintzen du, eta bertan adin, jatorri eta hezkuntza-prestakuntza desberdineko pertsonak interakzioan aritzen dira, beraien ezagutzak partekatzen dituzte eta gaitasun berriak lortzen dituzte.

Zergatik

- Herritarren parte-hartzea sustatzen laguntzen du
- Belaunaldien arteko harremanak sustatzen ditu
- Gizarteratzea errazten du
- Genero-ikuspegia barne hartzen du
- Kulturartekotasuna bultzatzen du
- Hainbat pertsona eta elkarteren arteko lankidetza
- Ingurumen-hezkuntzarako egokia
- Tokiko hizkuntzak ikasteko giro atsegina
- Talde-lanean trebatzea



IGA ICA ENV LOC LAN SOC

Nork

OANTOLATZAILEA:

- Piparrika elkartea

LAGUNTZAILEAK:

Auzo elkarteak

- Gizarteratzean eta hezkuntzan lan egiten duten tokiko erakundeak

TALDE HARTZAILEAK:

- Proiektuan lagundu nahi duen edozein pertsona
- Bizilagunak (familiak, emakumeak, gazteak, bestelakoak)
- Gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak
- Hirira iritsi berri diren atzerritarrak

Nola

- Auzolana baino lehen egin beharreko lanen ebaluazioa
- Erabili beharreko materiala antolatzea
- Zeregin bakoitzaren erantzukizuna esleitzea
- Jardueraren hedapena
- Zenbait elkarterentzako gonbidapen espezifikoak hilero



URRATSEZ URRATSEKO GIDA

JARDUERAREN AURRETIK

1. Data erabakitzea. Normalean larunbat goizetan egiten dira, hilean behin
2. Auzolanean egin beharreko lanak identifikatzea
3. Zer material erabili beharko diren zehaztea (lanabesak, lurra, haziak, landareak, etab.).
4. Materialak prestatu eta erostea
5. Jarduera zabaltzea (sare sozialen bidez eta auzoko kaleetan kartelak jarriz)

JARDUERAN

1. Jendea bildu eta ongietorria ematea
2. Jendea lantalde desberdinetan antolatzea, zereginen, beharren eta interesen arabera
3. Materialak ematea
4. Lanean hastea eta giroaz gozatzea!
5. Jarduera amaitzeko, elkarrekin bazkaltzen dugu, ahal bada baratzeko produktuak erabiliz.



Harremanetarako

Piparrika Elkartea

Aldapa kalea 3-5, Iruñea, Nafarroa

Emaila: huertoaldezaharra@gmail.com

facebook.com/Piparrika/ #piparrikaherribaratza

HIRIKO BARATZE KOMUNITARIOA - LANTEGI IREKIAK: EZAGUTZAK TRUKATZEA -

Zer

Tailer horietan proiektuaren filosofiarekin bat datozen hainbat gai lantzen dira. Jarduera horien bidez, egiten dugunaren gaineko ezagutza partekatzea da asmoaren funtsa. Uste dugu ezagutza kolektiboa gizabanakoen ezagutza edo trebetasunen batura baino askoz gehiago dela. Berariazko ezagutzak eskaini nahi dituzten pertsonek guztientzako tailer teoriko-praktikoa proposatzen dute. Normalean baratzean bertan edo baratzetik hurbil dagoen zentro komunitarioan egiten dira (eguraldiaren arabera). Bertan lantzen dira, besteak beste, gai hauek: sendabelarrak, sukaldaritza, nekazaritzako teknikak, kosmetika naturala, konpostajea, etab. Bistan denez, ikasgai gehienen helburua gure bizitzak zaintzeari eta ingurumenari buruzko ezagutza baliagarriak eskaintzea da.

Zergatik

- Jendearen parte-hartzea sustatzen laguntzen du
- Belaunaldien eta kulturen arteko harremanak errazten ditu
- Tokiko ezagutzen transmisioa sustatzen du
- Pertsonen artean ideiak, ezagutza eta ikaskuntza trukatzea sustatzen du.
- Gai garrantzitsuei buruz hausnartzen da: ingurumena, nekazaritza ekologikoa, osasuna, kontsumoa, etab.
- Pertsonen eta elkarteen arteko lankidetza sortzen du
- Hizkuntza- eta komunikazio-trebetasunak garatzeko abagune ona eskaintzen du
- Nornahik parte har dezake (ez da ordaindu edo izenik eman behar)



IGA ICA ENV LOC SOC

Nork

ANTOLATZAILEA:

- Piparrika elkartea

LAGUNTZAILEAK:

- Ezagutzak partekatu/trukatu nahi dituen edozein pertsona
- Gizarteratze-lanetan, hezkuntzan eta ingurumenean lan egiten duten tokiko erakundeak, besteak beste.

KOLEKTIBO HARTZAILEAK:

- Tailerrean parte hartu nahi duten herritarrak
- Bizilagunak (adibidez, familiak, emakumeak, gazteak)
- Gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak
- Hirira iritsi berri diren atzerritarrak

Nola

- Proposamena jasotzen da
- Tailerraren data eta formatua erabakitzen dira.
- Jarduera zabaltzen da
- Elkarte batzuk gonbidatzen dira



URRATSEZ URRATSEKO GIDA

JARDUERAREN AURRETIK

1. Tailerraren proposamena jasotzea
2. Data, edukia, formatua eta abar erabakitzea.
3. Zer material behar diren zehaztea eta lantegiaren kokalekua aukeratzea
4. Jarduera zabaltzea (sare sozialak eta kartelak kaleetan)

JARDUERAN

1. Jendea bildu eta ongietorria ematea
2. Lantegia hasten da. Ikasi eta gozatu!

Harremanetarako

Piparrika Elkartea

Aldapa kalea 3-5, Iruñea, Nafarroa, Espainia

Emaila: huertoaldezaharra@gmail.com

facebook.com/Piparrika/ #piparrikaherribaratza

ETXAPE PROIEKTUA: HIRIKO TERRAZA BERDEAK

Zer

Proiektu honek herriko gune degradatu bat berreskuratzea du helburu. Jendea elkartzeko, aisialdiko eta ikaskuntzarako gune bat sortu dugu: erabilera publikoko baratze ekologikoa duen paisaia-begiratokia. Proiektu hau ikasketa-zerbitzua metodologian oinarritzen da.

Zergatik

- Berriozarko alde zaharrean ez zegoen aisialdirako toki publikorik
- Erabili gabeko udal-eremu degradatu bat zegoen
- Eremu hori ikasleen prestakuntzarako erabil zitekeen
- Ikasturtean hainbat lan eginen dira (zurgintza, igeltserotza, mantentze-lanak, lorezaintza eta nekazaritza)
- Ikasleak gogo-beterik geratzen dira, jendearentzat eta, oro har, gizartearentzat ekintza positiboak eskaintzen dituztenean
- Hezkuntza formaleko gure programen osagarria da



IGA ICA ENV LOC LAN SOC

Nork

OANTOLATZAILEA:

- Lantxotegi elkartea

LAGUNTZAILEAK:

- Educo Fundazioa
- Berriozarko Udala
- Nafarroako Gobernua

KOLEKTIBO HARTZAILEAK:

- 15 eta 21 urte bitarteko 60 pertsona (ikasturte bakoitzean)
- Berriozarko bizilagunak
- Inguruko herrietako bizilagunak

Nola

- Lantxotegi Elkarteak gune degradatu bat aurkitu du alde zaharrean
- Udalari zaharberritzea proposatu dio
- Parte hartzeko prozesua ireki du
- Diru-funtsak bilatu ditu
- Ikasleak zeregin desberdinetarako prestatzen ditu



URRATSEZ URRATSEKO GIDA

1. Prozesu parte-hartzailea: Lantxotegi Elkarteko ikasleen artean planifikazioa egitea eta lekua hobetzeko proposamenak biltzea
2. Elkarteak proposamena Udalari egitea: Paisaia-begiratokia eta baratze ekologikoa
3. Herriko talde, erakunde, pertsona eta elkarteen parte-hartzea:

- Berriozarko Udala. Lekuaren, materialen eta lokalen lagapena eginez laguntzen du, baita dirua emanez ere.
- Berriozarko bizilagunak. Hasieran, parte hartzeko inkesta batekin. Geroago
- herritarrek parte hartzen dute baratze ekologikoa mantentzeko lanetan. Oporraldietan baratzeko produkzioa trukatzeak belaunaldien arteko ikaskuntza bultzatzen du.
- Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua. Diruz laguntzen du, gaitasun pertsonal eta profesionalei dagokienez ere bai, eta kulturarteko hezkuntza sustatzen du.

5. Finantzaketaren bilaketa aktiboa. Beste elkarte, fundazio, GKE batzuekin
6. Lanak, irakasgaiak eta moduluak elkartearen hezkuntza-programetan sartzea
7. Behar denean, proiektuak sortu dituen zeregin berriak inplementatzeko landu beharreko ikasgaiak eskaintzea ikasleei
8. Urtero prestakuntza-prozesua eta gune berria egin izana ospatzea eta gozatzea

Harremanetarako

Lantxotegi Elkartea: Sustapen Pertsonal, Laboral eta Sozialerako Elkartea

San Esteban kalea, 76. Berriozar, Nafarroa

Posta elektronikoa: lantxotegi@lantxotegi.org

www.lantxotegi.org

Google: Idatzi "Lantxotegi bankalak proiektua"



PROIEKTUARI ATXIKITAKO ERAKUNDEAK

ALEMIANIA
Braunschweig GmbH Helduentzako hezkuntza-zentroa

NORVEGIA
ArendalekoHelduen Ikaskuntza Zentroa (Arendal voksenopplaering)

POLONIA
GKEentzako Laguntza Zentroa (OWOP)

PORTUGAL
Caminhar – A.C.A.S.

ESPAINIA
Asociación Piparrika Elkartea
Lantxotegi Elkartea



Braunschweig GmbH Helduentzako hezkuntza-zentroa

Herri Unibertsitatea (VHS) Braunschweigeko (250.000 biztanle) hezkuntza publikoko zentroa da, eta hiriaren erdian dago. Lan-eremu nagusiak, helduentzako hezkuntza-ikastaroen sorta zabalaz gain, hauek dira: alemanaren irakaskuntza bigarren hizkuntza gisa eta atzerriko hizkuntza gisa, hizkuntza-prestakuntza 21 hizkuntzatan, alfabetatzea eta oinarrizko hezkuntza, lanetik kanpoko prestakuntza, heldu gazteentzako graduazio-ikastaroak, langabeentzako ikastaroak.

Herriaren izenean, VHSk epe luzeko langabetuentzako programak koordinatzen ditu.

2020ko urtarrilean, VHSren plantillan 200 langile eta 400 irakasle eta ikastaro independenteetako instruktore daude.

2012tik aurrera, Saxonia Beherea Estatuan oinarrizko hezkuntza eskaintzen duten zortzi eskualde-zentroetako (Regionale Grundbildungszentren, RGZ) bat da Herri Unibertsitatea, eta enpresa eta toki-erakundeekiko lankidetzan oinarritzen da. Herri Unibertsitatearen helburua da forma berritzaileak eskaintzea oinarrizko trebetasunak lantzeko lantokiko ikastaroetan, tokiko hainbat eragilerekin elkarlanean, barne direla kultura erakundeak, esaterako antzokia eta liburutegia; betiere lankidetza horrek aurreko urteetan eman dituen esperientziak baliatuz.

Urtero, RGZk proiektu kultural eta historiko-politikoak antolatzen ditu. Horietan, oinarrizko hezkuntzako ikastaroak hainbat eragilerekin elkarlanean antolatzen dira, besteak beste, tokiko egile eta artisten zirkuituak, historia, lehen garaietatik gaur egunera arte.

2016an eta 2017an, RGZ VHS Braunschweig Herri Unibertsitateakera berezian landu zuen oinarrizko hezkuntzarako auzo-proiektuen ezarpena. Horren testuinguruan, Herri Unibertsitatea hainbat bazkiderekin lankidetzan aritu da auzoetan helburu dituen taldeengana iristeko.

Ikasteko eta gizarteratzeko jarduera anitz eskaintzeko gune gisa, VHS Herri Unibertsitatea hiri-baratzeen proiektu bat antolatzen ari da hiriko bi lekutan, hainbat talde eta ekitaldirekin.



Braunschweig GmbH-ko Helduentzako Hezkuntza Zentroa

Alte Waage 15, 38100 Braunschweig, Alemania

www.vhs-braunschweig.de

ARENDAL VOKSENOPPLÆRING

ArendalekoHelduen Ikaskuntza Zentroa (Arendal voksenopplaering)



Arendal voksenopplaering (Arendaleko Helduen Ikaskuntza Zentroa) Norvegiako hegoaldeko kostaldean dago, Arendaleko udalerrian. Hiriak 44.000 biztanle ditu eta eskolak 65 langile. Gure eskola Sørlandet Kunnskapshavn izeneko enpresa-talde bateko kidea da. Talde horretan biltzen dira tokiko, eskualdeko eta nazio mailakoak izanik bertan lan egiten duten hainbat enpresa, eta horiekin batera, zientzia-zentro bat eta gure ikastegia. 27.000 m2-ko eremua da, eta bertan biltzen dira herritarrak, enpresak, eragile publikoak eta hezkuntza-erakundeak.

Helduen ikaskuntzarako baliabideen zentro berritzailea gara, eta hainbat erabiltzaile-talderentzako irakaskuntza-metodo desberdinak eskaintzen ditugu. Gutxi gorabehera, 16 eta 70 urte bitarteko 400-500 ikasle izaten dira izena emanda gure eskolan urtero; horietatik %95ek norvegiera bigarren hizkuntza dute. Gure komunitateko prozesu demokratikoetan parte hartzera bultzatzen ditugu ikasleak. Gure helburuetako bat da pertsona migratzaileei herritar aktibo gisa parte hartzeko aukera ematea eta lanerako, bizitzarako edo etorkizuneko ikasketetarako prestatzea, haien trebetasunak eta gaitasunak hobetuz. Hori guztia eskolan egiten da, baina baita boluntarioen sektorearekiko lankidetza zabalaren bidez ere. Gure beste helburuetako bat da dagoeneko lanean ari diren pertsonei lanpostuan sendotzen laguntzea, oinarrizko trebetasunik ez izateagatik lana gal ez dezaten.

Arendal voksenopplaering

Kystveien 2b, 4841 Arendal, Norvegia

https://www.arendal.kommune.no/tjenester/skole/voksenopplaringen/

OWOP

GKEentzako Laguntza Zentroa (OWOP)

OWOP zentroaren xedea herritarren eta haien erakundeen jarduera soziala bultzatzea da. 20 urtetik goiti eman ditugu gobernuz kanpoko erakundeei eta tokiko liderrei laguntzen, prestakuntza, aholkularitza eta dinamizazioaren bidez. GKE bat sortzeko asmoa duten taldeei laguntzen diegu, eta tokiko GKEen aldeko zenbait proiektu egiten ditugu. Gure helburua erakundeen, liderren eta tokiko komunitateen gaitasuna indartzea da. Zuzendaritza-batzordeko kideak, erakundeetako buruak, finantzariak, proiektu-koordinatzaileak eta boluntarioak prestatzen ditugu. Tokiko eta eskualdeko sareak eta GKEen federazioak sortzea sustatzen dugu.

Gure jardueraren zati garrantzitsu bat sektoreen arteko lankidetza-arloa ere bada. Tokiko gobernuko sailekin lankidetzak eratzen ditugu eta horren bidez handitu egiten da erakundeen esku-hartzea parte-hartze prozesuetan. Jarduera parte-hartzaileak antolatzeko modu berriak eskaintzen ditugu, kontsulta publikoak barne. Tokiko gobernuko unitateetan parte hartzen saiatzen gara. Politika publikoen plangintzan eta aplikazioan parte hartzen dugu.





GKEentzako Laguntza Zentroa

Modlinska 6/U3, 15-066 Bialystok, Polonia

www.owop.org.pl



Caminhar – A.C.A.S.

Caminhar irabazi-asmorik gabeko gizarte-elkartasuneko erakunde pribatua da, eta 2002an sortu zen Ponte de Sor hirian (Portugal), tokiko komunitateko boluntario-talde baten eskutik. Gizarte eta hezkuntza arloetako laguntza ematea du helburu, tokiko komunitatea eraldatzeko eta gizarte kontzienteago, aktiboago, solidarioago eta ikasiagoa lortzeko. Horretarako, batez ere, pertsonen bizi-kalitatea hobetzen eta tokiko komunitatearen garapena sustatzen lagunduko duten zerbitzuak eta proiektuak abiarazten ditu. Tokiko lankidetzan aritzeak eta trebetasunak zein baliabideak partekatzeak duten indarra azpimarratzen dugu, alde batetik, eta bestetik, belaunaldien arteko elkarrizketaren garapena lantzen dugu.

Gure lanaren helburua tokiko komunitatea da. Beraz, umeekin, gazteekin, familiekin eta adineko pertsonekin lan egiten dugu, haien ongizatea eta tokiko, estatuko eta Europako komunitateetako kide izatea bultzatzeko.

Adinekoentzako hezkuntza- eta trebakuntza-proiektuek helburu hauek dituzte:

- bizimodu osasungarriak,
- herritar aktiboak,
- zahartze aktiboa,
- arteak eta lanbideak,
- garapen pertsonala eta soziala belaunaldien arteko harremanen bidez,
- boluntarioen lana,
- gurasoen trebetasunak garatzea.

Adinekoentzako hezkuntza-zerbitzu nagusiak hauek dira:

- Hirugarren Adinekoen Unibertsitatea, 50 urtetik gorako helduentzako hezkuntza ez-akademikoko programa;
- Tokiko boluntarioen sarea, erregulartasunez sareko eta, oro har, komunitateko boluntarioei trebakuntza eta garapen pertsonalerako aukerak eskaintzen dizkiena.
- "ABC" hezkuntza-proiektua; Lehen Hezkuntzako ikasleei laguntza ematen die eta prestakuntza eskaintzen die hezkuntzan parte hartzen duten familiei eta komunitateko beste kide batzuei,hezkuntzaren eta guraso-gaitasunen arloetan;
- Ponte de Sor hiriko Gospel abesbatza, erlijioen arteko abesbatza, musikaren eta kantuaren bidez gizarte-kohesioa sustatzeko helburuarekin.

Caminhar - A.C.A.S.

Rua Movimento das Forças Armadas, 17,
7400-246 Ponte de Sor, Portugal

http://www.caminhar.org/



Piparrika Elkartea

Piparrika irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Iruñeko alde zaharreko bizilagunek sortua. Ideia hori 2013ko ekainean sortu zen, herritarren ekimen gisa, eta hiriko baratze komunitarioaren eraikuntza 2017ko otsailean hasi zen, 2016an espazio publiko bat lagatzea lortu ondoren. Proiektu autogestionatua eta horizontala da, eta batzarretan eta lantaldeetan antolatutako boluntarioek zuzentzen dute, neurri handi batean kudeaketa autosufizientearekin. Auzokoen parte-hartzea eta hainbat elkarterekin lankidetzan aritzea dira proiektua eraikitzeko eta hazteko funtsezko faktoreak.

Helburu nagusia komunitatea indartzen laguntzea da, gizartearen, hezkuntzaren eta ingurumenaren ikuspegitik proaktiboagoa eta kohesionatuagoa izan dadin. Jasangarritasuna, genero-ikuspegia, gizarteratzea, kulturartekotasuna, belaunaldien arteko harremanak eta degradatutako espazio publikoak berreskuratzea ere bilatzen du.

Hitz gutxitan esanda, baratzeak elkargune gisa funtzionatzen du eta hainbat helburu lortzeko bitarteko bat da.

Piparrika proiektuko bazkideetako bat izan zen, baina gauzatu bitartean Lantxotegi erakunde lankidearen laguntza izan zuen.

Lantxotegi Elkartea

Lantxotegi irabazi-asmorik gabeko elkartea da, onura publikoaren aitorpena duena, eta Berriozarren sortu zena 1983an, herriko bizilagun-talde batek herriko gazte batzuen eskolagabetzea eta langabezia ikusita kezka hartu zuelako, izan ere, gazte horietako asko gizartetik bazter geratzeko arriskuan baitzeuden.

Elkartearen helburua da bere lana ardazten duten pertsonei behar diren baliabide guztiak ematea (pertsonalak, erlazionalak, lan-arlokoak, kulturalak, etab.), pertsona horiek hazi daitezen eta beren esku har ditzaten normalizatzeko, egokitzeko eta integratzeko prozesuak, era horretan saihesteko gizarte-bazterkeria.

Une honetan, egoera sozioekonomiko ahulean dauden gazteekin lan egiten dugu gure erakundean, hezkuntza formaleko hiru programaren bidez:

- CEP: 14 eta 15 urteko gazteentzako Curriculum Egokituko Programa, derrigorrezko hezkuntzaren zati gisa;
- OLH: Nekazaritzako Lorezaintzako Oinarrizko Lanbide Heziketa eta Lore Konposizioak DBH ez duten 15 eta 17 urte bitarteko gazteentzat.
- LL: Eraikinak mantentzeko lanbide-lantegia, 17 eta 21 urte bitarteko gazteentzat.

Gainera, Lantxotegik gazteentzako Aisialdi Eskola bat du, GJNErekin elkarlanean ikastaroak eskaintzen dituena. Eta udako kanpalekua ere antolatzen du, horretarako bekak eskainiz, herrian arazo sozioekonomiko larriak dituzten gazteentzat.

Asociación Piparrika Elkartea

Piparrika Elkartea

Aldapa kalea 3-5, Iruñea, Nafarroa, Espainia

Facebook: @Piparrika, Instagram: @Piparrika HerriBaratza

Lantxotegi Elkartea:

Sustapen Pertsonal, Laboral eta Sozialerako Elkartea

San Esteban kalea, 76. Berriozar, Nafarroa, Espainia

www.lantxotegi.org